

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2007ko martxoaren 19a

27. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako 2005eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako 2005eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko otsailaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako 2005eko kontu orokorren azterketari buruz Nafarroako Comptos Ganberak emandako txostena ikusita, hona ERABAKIA:

1. Txosten horren jakitun dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2007ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako 2005eko kontu orokorren azterketari buruzko txostena, Comptos Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Helburua (6. or.).

III. Lanaren norainokoa eta mugak (7. or.).

III.1. Lanaren norainokoa (7. or.).

III.2. Mugak (7. or.).

IV. Iritzia (7. or.).

IV.1. Kontu orokorrak (8. or.).

IV.2. Legezketasunaren printzipioa betetzea (8. or.).

IV.3. 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera (8. or.).

IV.4 Comptos Ganbera honek aurreko txostenetan emandako gomendioen betetzea (10. or.).

IV.5 Eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maila (10. or.).

V. 2005eko kontu orokorrak osatzen dituzten egoera finantzarioei buruzko laburpena (11. or.).

V.1. 2005eko aurrekontuaren likidazioa (11. or.).

V.2. Egoera-balantzea, 2005eko abenduaren 31n (eurotan) (12. or.).

V.3. Eraitzen kontua (eurotan), 2005eko abenduaren 31n (14. or.).

VI. Hitzarmen Ekonomikoa (16. or.).

VII. Enpresen sektore publikoa (16. or.).

VIII. Zerga-gastuen azterketa (17. or.).

IX. O-NOZeko aldi baterako langileen kontratazioen azterketa (19. or.).

X. Aurrekontu-programei buruzko azterketa (21. or.).

X.1. Aurrekontu programei buruz (21. or.).

X.2. Programen oroitidazkiei dagokienez (21. or.).

X.3. Aurrekontuei eta programen oroitidazkiei dagokienez (22. or.).

XI. Gomendio orokorrak (22. or.).

XI.1. Aurrekontuak eta kontu orokorrak (22. or.).

XI.2. Kontabilitatearen kudeaketa (23. or.).

XI.3. Kontu-hartzailletza eta barne kontrola (23. or.).

XI.4. Langileak (23. or.).

XI.5. Kontratazioa (23. or.).

XI.6. Ibilgetua (23. or.).

XI.7. Tributuen arloko dirusarrerak eta zordunak (24. or.).

XI.8. Diruzaintza (24. or.).

XI.9. Enpresa publikoak (24. or.).

Eranskina. Foru erkidegoko administrazioaren beste erakunde batzuk (25. or.).

Nafarroako Gobernuako lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariak aurkeztutako oharra (26. or.).

Aurkeztutako oharrei Nafarroako Comptos Ganberak emaniko erantzuna (27. or.).

Cuentas Generales de Navarra de 2005.

- Acuerdo de aprobación del proyecto de Ley Foral de Cuentas Generales de Navarra de 2005.

- Acuerdo de Modificación de las Cuentas Generales, de 30 de octubre de 2006

- Memoria que presenta el Gobierno de Navarra.

Oharra: Nafarroako kontu orokorrak foru parlamentarien eskura daude Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta ondoko webgunean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako Gobernuaren 2006ko irailaren 4ko erabakiaz –urte bereko urriaren 30eko beste erabaki batez aldatua– Nafarroako 2005eko kontu orokorrei buruzko Foru lege proiektua onetsi zen. Oroitidazkian jasotzen den bezala, kontu horiek, 8/1988 Foru Legeko 113. artikuluan xedatuari jarraituz, honakoek osatzen dituzte:

«• Nafarroako Parlamentuaren eta Comptos Ganberaren kontuak. Arartekoaren kontuak erantsi dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legea onetsi eta ondoren sortutako erakundea baita.

- Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuak (9).

- Sozietate publikoen kontuak (30). Sozietate publikoak 8/1988 Foru Legeko 5. artikuluan aipatzen direnak dira.

- Aurrekontu bereizia duten zuzenbide publikoko erakundeen kontuak: Suhiltzaileen Partzuetara, Nafarroako Kontseilua eta Ikus-entzunezkoen Kontseilua.


Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuek honakoak biltzen dituzte: egoeraren balantze orokorreko datu bateratuak, emaitza ekonomikoaren eta ondarezkoaren kontua, aurrekontuaren likidazioaren egoera eta haien ondareari, finantzei eta aurrekontu-betetzeari buruzko informazioaren oroitidazkia.

Sozietate publikoen urteko kontuak haiei eginko auditoria independenteen kasuko txostenekin aurkeztu dira, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legeko 114. artikuluan xedatuaren arabera.

Argitasuna eta gutxieneko homogeneotasuna gordetze aldera, izatez gobernuaren legezko betebeharrak diren bereizirik aurkeztu dira, kontuak emateari dagokionez, Nafarroako Gobernuaren menpeko beste entitate batzuen kontuak (fundazioak).

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren menpekoak ez diren zuzenbide publikoko erakundeen kontuak ere sartzen dira; haiei buruz, hain zuzen ere, Ogasun Publikoari buruzko Foru Legeak ez dio kontu orokorretan sartu behar diren ala ez diren sartu behar; hala eta guztiz ere, ulerturik arauak, funtzionamenduari erreparatuta, foru erkidegoko administrazioarekin asimilatzen dituela, sartu egin ditugu.”

Azken batean, 2005erako Nafarroako kontu orokorrei buruzko dokumentuak Foru Ogasunari buruzko Legean aurreikusitako entitateak jasotzen ditu, eta lege horretan aurreikusi ez ziren baina foru erkidegoko sektore publikokoak diren beste entitate publiko batzuekin osatzen da.



* Enpresa publikoak hurrengo orrialdean daude.

Entitate horietaz gain, beste erakunde batzuk ere badaude, bestelako eskumen-maila, funtzio eta aurrekontu-bolumena dituztenak (txostenaren eranskinean aurkezten dira horiek).

Ekitaldi honetan aldaketa bat gertatu da kontu orokorren aurkezpenean, informazioa hobeki eskuratu ahal izateko eta hura erabiltzea erosoagoa izan dadin. Horretarako, formatu bikoitzean aurkezten dira:

- Paperezko argitalpen bat, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen kontuei buruzko informazioaren atal aipagarrienak jasotzen eta laburtzen dituena. Sozietate publikoen kontuen laburpen-dokumentu bat ere hartzen du.

- Euskarri digital bat, non entitate eta sozietate publikoen kontuak osorik sartzen diren, haiei buruz eginiko auditoria txostenekin batera. Euskarri horretan, aurrekontu-programen oroitidazkiak ere sartzen dira, bai eta hasierako atalean aipaturiko gainerako entitateen kontuak ere; izan ere, haiek, hertsiki, kontu orokorren xedea ez diren arren, sartzearabaki da (informazio hori <http://centdes04/prm/CuentasGenerales/home.htm> helbidean aurki daiteke).

Gure lanean zehar, Comptos Ganberak egiaztatu zuen Nafarroako Gobernuak ez zuela erregistratua bere balantzean Tracasa enpresa publikoaren kapital handitzearen zenbatekoa, 1.138.858 euro egiten dituena; kapital handitze hori espezie-tan eginiko ekarpen batez egin zen.

Nafarroako Gobernuari egoera hori jakinarazi eta akatsa egiaztatu zenean, gobernuak orain aztergai ditugun 2005eko finantza-egoeren orriak zuzendu zituen, eta, horretarako, 2006ko urriaren 30ean, horri buruzko erabakia onetsi zuen.

Aurrekoa kontuan izanda, txostenak honako egitura du:

- Sarrera, helburua, norainokoa eta mugak jasotzen dituzten hiru epigrafe.

- Bi epigrafe iritziari eta finantza-egoera orriei buruz (aurrekontu-likidazioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua).

- Bost epigrafe ondokoei buruzko iruzkin labur batzuekin: Hitzarmen Ekonomikoa, enpresen sektore publikoa, gastu fiskalei buruzko azterketa, O-NOZen kontratazioari buruzko azterlana eta aurrekontu programen azterketa.

- Hamaikagarren epigrafeak egindako lanaren ondoriozko gomendioak jaso ditugu.

- Gainera, eranskin bat ere badago Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren beste erakunde batzuen aipamenarekin.

- Halaber, Nafarroako Gobernuak prestatuturiko oroitidazkia ere gehitu dugu.

Azterketa lana 2006ko maiatzetik urrira bitartean egin zuten auditore batek eta auditoriako sei teknikaririk osatutako taldeak, praktiketan ari zen unibertsitate-ikasle baten laguntzarekin aldi batean, eta Comptos Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Gobernuko langileei eta, bereziki, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko, esker-erak eman nahi dizkiegu gure lana egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Indarreko araudiarekin bat etorriz, eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2006ko irailaren 18an eta azaroaren 13an hartutako erabakiak betez, Nafarroako 2005eko kontu orokorrak fiskalizatu ditugu, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- 2005eko ekitaldiko Nafarroako kontu orokorrek, alderdi esanguratsu guztietan, fidelki islatzen ote dituzten, alderdirik behinenetan, ekitaldi horretako ondarea, aurrekontuen likidazioa eta erdietsitako emaitzak, aplikatzeak zaizkion eta aurreko ekitaldian aplikaturikoekin bat datozen kontabilitate printzipio eta araei jarraituz.

- Foru erkidegoko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen ekonomi eta finantza jardura legezketasunaren hastapenaren menpe ote dagoen.

- Foru Ogasunaren 2005eko abenduaren 31ko finantza-egoera.

- Nafarroako kontu orokorreari buruzko aurreko fiskalizazio txostenetan Comptos Ganberak emandako gomendioen betetze maila.

Iritzi horren osagarri, Nafarroako Gobernuak garaturiko eginkizunei atxikitako baliabide publikoen kudeaketan erdietsitako eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia maileri buruzko ondorio bat eman dugu.

III. LANAREN NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. LANAREN NORAINOKOA

Gure lanaren norainokoaren jomuga izan da, batik bat, 2005eko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, 2005eko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta 2005eko ekonomia eta ondare emaitzen kontua aztertu eta zentsuratzea eta oroitidazkian aurkeztutako datuen iruzkinak eta barne koherentzia berraztertzea, hori guztia Nafarroako Gobernuari eta haren erakunde autonomoei dagokienez.

Kontu orokorra osatzen duten gainerako entitatei buruz, berriz, hauxe adierazi behar dugu:

- Ganbera honek parlamentu-erakunde guztiak, Nafarroako Kontseilua eta Nafarrako Ikusentzunezkoen Kontseilua aztertu ditu, eta lan horien emaitzak txosten honetan bildu ditu.

- Enpresa publiko guztiak kanpoko profesionalen eginiko auditoriak aurkeztu dituzte. Arlo honetan, gure jardunaren ardatza izan da kasuko txostena berrikustea, horretatik iritzia eta ondorio nagusiak ateratzea eta haien alderatzea oroitidazkian adierazitakoarekin.

Metodologiari dagokionez, Espainiako Kanpoko Kontrolerako Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsitako "sektore publikoko auditoretzako printzipio eta arauak" aplikatu dira.

Finantza eta aurrekontu egoera-orriak berrikustean aplikatu dira aurreikusitako helburuak erdiezteko behar diren auditoria probak eta prozedurak, inguruabarren arabera. Prozedura horien artean, laginen teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Gainera, Nafarroako Comptos Ganbera honek eginiko berriazko fiskalizazio txosten hauek ere aintzat hartu dira:

- Ezkabako tunelak.

- Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua (2002tik 2005era bitarteko ekitaldiak). Erreferentzia berezia menpekotasun egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuen prestazioari.

Era berean, Kontu-hartze Orokorraren Zerbitzuak egindako zenbait txosten erabili dira, baita Administrazio Kontrataziorako Batzordearen eta Herrilan Departamentuaren oroitidazkiak ere.

Esparru operatiboan, eta ikusirik nolako mugak zeuden –ikus III.2 idatz-zatia–, gure lanaren jomuga izan da Gobernuan aplikatzen den aurrekontu antolaketa, programakakoa, orokorrean aztertu eta oroitidazkian ageri den informazioarekin alderatzea.

III.2. MUGAK

Hurrengoak jarri dio muga gure lanari:

Ezin izan dugu ondorioz atera 2005eko baliabide publikoen kudeaketa dela-eta Nafarroako Gobernuak lortu duen eraginkortasun, efizientzia eta ekonomia mailari buruz, xedeen eta adierazlearen definizioarengatik eta kalitatearengatik, horien exekuzio mailaren jarraipenarengatik eta haien desbideratzeen azterketarengatik, ez baitago aurrekontu-programetan aurkeztu beharreko informazioari buruzko informazio uniformerik. Kostuak kontabilizatzeko sistemarik ez dagoenez, ezin da zehaztu zein den oinarritzko zerbitzu publikoak ematearen kostua.

Hala eta guztiz ere, hamargarren epigrafean, aurrekontu-programei buruzko azterketa bat eman dugu.

IV. IRITZIA

Egin dugun lanaren norainokoarekin bat, Nafarroaren 2005eko ekitaldiko kontu orokorrak aztertu ditugu. Kontuak prestatzeko ardura, baita haien edukia ere, Nafarroako Gobernuarena da, eta laburbilduta jasota daude txosten honen V. atalean.

Ekitaldi honetan, gastu fiskalen eta BEZaren erregistroarekin loturiko kontabilitate-irizpideak aldatu dira.

Hartara, zera esan behar dugu:

- 2005erako Nafarroako aurrekontu orokorrean, lehenbiziko aldiz, gastuen eta dirusarreraren kontusail gisa zergaarintze batzuk sartu dira, urte horretarako aurrekontuen foru legeko 35. artikuluan jaso bezala. Horren ondorioz, aurrekontu-betetzearen guztizko zenbatekoak, gastuenak zein dirusarrenak, 221.752.082 euro gehiago egiten du.

- BEZaren likidazio negatiboak kontabilizatzeko lehen erabiltzen zen sortzapenaren irizpidearen orde, kutxako irizpidea erabili da. Hartara, orain arte sortutako ekitaldian itzultzeko edo konpentsatzeko zenbatekoak dirusarrera txikiagotzat erregistratzen ziren, baina hemendik aurrera benetan itzultzen edo konpentsatzen direnean erregistratu dira.

Aldaketa honen eraginak 325.128.142 euroko jaitziera ekarri du balantzeko saldo hartzekoduntan; saldo horiek, izan ere, hurrengo ekitaldietan egotziko dira. Balantzeko saldoen aldaketa horrek eragina izan du, logikoa den bezala, emaitzen kontuan.

Azken irizpide aldaketa hori egin da Nafarroan aplikatutakoa Estatuko beste tributu-administrazio batzuetan aplikatutakoari egokitzeko.

Gure jarduketaren ondorioz, ondoko iritzia atera dugu:

IV.1. KONTU OROKORRAK

IV.1.1. Aurrekontuaren betetzea

2005eko aurrekontuaren likidazioan azaltzen diren gastu eta dirusarrerak zentzuz islatzen dute ekitaldi horretan Nafarroako Gobernuak eta bere erakunde autonomoek burutu duten jarduera, hurrengo salbuespenarekin:

- 2005eko kontuek egin gabe gelditu ziren eta 2005eko ekitaldira pasatu diren 2004ko gastuak biltzen dituzte, eta 2006eko ekitaldian 2005eko ondoko gastuak kontabilizatu dira.

a) 10,8 milioi euroko gastuak, handitzekoak ez diren kontusailei dagozkienak; funtsean osasun materialerako eta laborategiko materialerako kontusailak dira.

b) 1,3 milioi euroko gastuak, handitu daitezkeen kontusailletakoak (sendagaiak eta transplanteak).

Nafarroako Gobernuak, aurreko ekitaldietakoe-kin koherenteak diren aurrekontu eta kontabilitate irizpideak aplikatuz, zorraren 32.784 euroko amortizazio garbia islatzen du, 138.200.000 euroko jaulkipen batetik eta 138.232.784 euroko amortizazio batetik heldu dena.

IV.1.2. Egoeraren balantzea

Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen egoera-balantze bateratuak Foru Ogasunaren 2005eko abenduaren 31ko ondare-egoeraren ezaugarriarik nabarmenenak islatzen ditu, honako salbuespen hauekin:

- Ibilgetua. Ibilgetuaren saldoek ez dituzte behar bezala agertzen Nafarroako Gobernuaren jabetzako ondasunak, ondokoak direla eta:

a) Ez dituzte jasotzen mota horretako ondasun guztiak, eta ez dira aztertu, ezta kasua denean araztu ere, saldo historikoak.

b) Inbentarioa eta kontabilitateko datuak ez daude berdinkaturik.

- Tributuen arloko dirusarrerak eta zordunak. Osatzeko dago Tributu Ogasunak ekitaldian erregistraturiko eskubideen eta kontabilitatean sortutako-koen berdinkatzearen prozesua.

- Gorabeherak. Ez dira jaso Nafarroako Gobernuaren funtzionarioen pentsio-sistemak sorrarazten dituen obligazio aktuarialen ondorioz dauden gorabeherak.

Ziurgabetasun bat badago, 2005-2009 bosturtekorako hitzarmen ekonomikoaren oinarrien gaurkotzeak zama orokorretarako ekarpenaren zenbatekoan izan ditzakeen ondorioek eragindakoa; izan ere, administrazio zentralak eta foru administrazioak oraindik ere ez dute hitzarmen hori adostu.

IV.1.3. Emainza-kontua

Kontuko saldoa -497 milioi euroko aurrezkia edo etekina- Nafarroako Gobernuak 2005ean lortu zuen mota horretako emaitzaren isla da.

497 milioi horiek BEZa kontabilizatzeko irizpidean izaniko aldaketen ondoriozko etekinak (325 milioi euro) biltzen dituzte.

IV.1.4. Oroitidazkia

2005erako ekitaldiko oroitidazkiak, Nafarroako 2005eko ekitaldiko kontu orokorrak interpretatu eta oro har ulertzeko behar den informazioa eskaintzen du.

Oroitidazkia aztertzerakoan, honakoak hartu behar dira kontuan:

- Kontratazioari buruzko informazioan, akats bat gertatu da, laguntzako kontratu baten datuak sartzetarakoan eta pezetatan emaniko zenbatekoa (104 milioi) eurotan jarri baita. Halaber, antzeman da esleipen-hartzaile anitz dituzten kontratuetan guztizko kopurua erregistratzen dela kasu guztietan. Horrenbestez, kontratazioko datu guztiek akats horiek dituzte.

- Ekitaldi honetan, kontuan harturik arestian aipaturiko kontabilitate irizpideen aldaketak, bereziki finantza-egoerari buruzko datuak erraz alderatu ahal izateko, aurreko ekitaldietako datu homogeneizatuak ere eman ditugu. Hau da, gastu fiskalen eragina kendu da; hain zuzen ere, gastu horiek 2005ean sartu dira lehenbiziko aldiz aurrekontuan.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN PRINTZIBIOA BETETZEA

Eginiko lanak erakusten duenez, Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen jarduera, oro har, legezkontasunaren printzipioari jarraituz gauzatu da.

IV.3. 2005eko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

3.154 milioi euroko hasierako aurrekontuarekin, horren barne gastu fiskalak daudela, eta 3.428 milioi euroko aurrekontu bateratuarekin, Nafarroako Gobernuak 3.310 milioi euroko gastuak exeku-

tatu ditu, ehuneko 96,57, eta 3.384 milioi euroko dirusarrerak, ehuneko 98,72.

2004ko ekitaldiari dagokionez, gastuen exekuzioaren ehunekoak 18 puntutan egin du gora (ehuneko 10, gastu fiskalak ere aintzat hartuz gero); dirusarrerek, berriz, ehuneko 24 egin dute gora (ehuneko 16, gastu fiskalak ere aintzat hartuz gero).

Dirusarreraren hazkunde handiago horrek aldaketa bat ekarri dio aurrekontu-emaitzari, zeina pasatu baita 2004an 84 milioi euroko defizita izatetik 2005ean 74 milioi euroko superabita izatera.

Jatorri ekonomikoari erreparatuta, gastuak eta dirusarrerak honela banatzen dira, ehunekotan:

Gastua	2004	2005	Dirusarrera	2004	2005
Transferentziak	53	55	Zeharkako zergak	50	46
Langileak	28	26	Zuzeneko zergak	42	46
Ohiko ondasunak	9	9	Transferentziak	3	3
Inbertsioak	7	7	Tasak eta prezio publikoak	3	2
Bestelakoak	3	3	Bestelakoak	2	3
Guztira	100	100	Guztira	100	100

Gobernuaren gastuen aplikazioaren xede den funtzioaren ikuspegitik, halaxe banatzen dira, ehunekotan, gastuak:

Txosteneko taula	2005
Osasuna	21
Estatuaren zama orokorrak	16
Hezkuntza	14
Gizarte babesa	9
Azpiegiturak	7
Bestelakoak	33
Guztira	100

Datu hauetatik ondoriozta daitekeen bezala, gastuaren erdia baino gehiago osasunerako, hezkuntzarako eta Estatuaren zametara egiten den ekarpena ordaintzeko bideratzen da.

Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-emaitzari, 74 milioi euro, Nafarroako administrazio publikoen sektorean sarturiko entitateen multzorako kalkulaturik, SEC'95 arauaren arabera, 174 milioi euroko superabita edo finantzaketa ahalmena dagokio, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak eginiko kalkuluen arabera.

Maniobrako funtsa, aurreko ekitaldietan negatiboa izan dena, 2005ean positiboa da, 248 milioi eurokoa, hain zuzen ere.

Epe luzeko zorra honela banatzen da:

Zorra	Zor publikoa	Zorren gainerakoa	Guztira
Administrazio orokorra	557,5	25,6	583,1
Enpresen sektorea	–	134,7	134,7
Guztira			717,8

Oroitidazkiko 87. artikuluan eta hurrengoetan, finantza-egoerari buruzko informazio xehatua ematen dugu.

IV.4. COMPTOS GANBERA HONEK AURRE-KO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA

2005eko azaroan, Nafarroako Gobernuak Kontratu publikoei buruzko Foru Lege proiektua onetsi zuen; Nafarroako Parlamentuak 2006ko ekainean eman zion behin betiko onespena, eta horrekin, kontratuei buruzko foru arauak gaurkotu dira eta Europako zuzentarauetara egokitu dira.

Nabarmentzeko moduko aldaketa bat egin da kontu orokorren oroitidazkiaren aurkezpenean, eta zenbait alderdi zuzendu dira.

Hala eta guztiz ere, indarrean jarraitzen dute Comptos Ganberak lehentasun gisa erreklamatu izan dituen gomendioek, honakoek hain zuzen: ibilgetuari eta inbentarioari buruzkoak, zordunei buruzkoak, gorabeherei buruzkoak, Nafarroako

Gobernuaren kontabilitate araei buruzkoak, eta, azkenik, hirugarrenen kontabilitate-sistema lagungarria gaurkotzea komenigarria izateari buruzkoak.

Programen arabera eginiko aurrekontuez eta eraginkortasun, efizientzia eta ekonomiaren azterketaz esan beharra dago azterketa zorrotza egin beharko dela, aurrekontua eratzeko eta likidatzeko gaur egungo metodologia erabaki-hartzearen prozesuaren beharretara eta, finean, kudeaketarenetara egokitzeari buruz.

IV.5. ERAGINKORTASUN, EFIZIENTZIA ETA EKONOMIA MAILA

III.2 atalean adierazitako mugak ezinezko egingen digu 2005eko ekitaldiko aurrekontu-betetzean oro har iritsitako eraginkortasunari, efizientiari eta ekonomiari buruzko balorazio orokorra egitea.

Hala eta guztiz ere, hamargarren epigrafean, aurrekontu-programei buruzko azterketa bat eman dugu.

V. 2005eko KONTU OROKORRAK OSATZEN DITUZTEN EGOERA FINANTZARIOEI BURUZKO LABURPENA

V.1. 2005eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

2005eko gastuen aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa /bateratua (ehunekotan)
Langileen gastuak	848.621.175	20.094.611	868.715.786	856.994.871	26	99
Ondasun arruntetako gastuak	268.898.988	19.519.784	288.418.772	281.746.500	8	98
Finantza-gastuak	47.646.380	-172.098	47.474.282	46.712.607	1	98
Transferentzia arruntak	1.239.264.347	91.573.665	1.330.828.012	1.315.708.385	40	99
Inbertsio errealak	228.013.574	21.839.164	249.852.738	224.828.288	7	90
Kapital-transferentziak	499.714.505	55.732.896	555.447.401	498.488.419	15	90
Aktibo finantzarioak	22.055.824	64.971.234	87.207.058	85.860.306	3	98
Pasibo finantzarioak	7.000	30.783	37.783	32.783	-	87
Guztira	3.154.221.793	273.590.039	3.427.981.832	3.310.372.159	100	97

2005eko dirusarreraren aurrekontuaren likidazioa, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulu ekonomikoa	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Bateratua	Betetakoa	Guzt. g/ %	(eurotan)
						Betetakoa /bateratua (ehunekotan)
Zuzeneko zergak	1.482.135.006	75.133.449	1.557.268.455	1.539.981.684	46	99
Zeharkako zergak	1.422.516.000	146.418.703	1.568.934.703	1.562.358.543	46	100
Tasak, prezioak eta bestelako dirusarrerak	61.442.541	13.647.623	75.090.164	73.356.587	2	98
Transferentzia arruntak	38.320.011	11.797.372	50.117.383	44.104.171	1	88
Ondare-dirusarrerak	79.265.665	1.093.126	80.358.791	78.906.779	2	98
Inbertsio errealen besterentzea	16.355.420	7.384.684	23.740.104	15.141.009	1	64
Kapital-transferentziak	29.251.869	17.856.344	47.108.213	44.603.123	1	95
Aktibo finantzarioak	24.935.281	258.739	25.194.020	25.543.346	1	101
Guztira	3.154.221.793	273.590.040	3.427.811.833	3.383.995.242	100	99

V.2. EGOERA-BALANTZEA, 2005eko ABENDUAREN 31n (eurotan)

AKTIBOA	2005eko ekitaldia	2004ko ekitaldia
A) IBILGETUA	1.711.872.081,29	1.591.717.114,33
III. Ibilgetu materialak	1.330.583.403,31	1.257.164.767,12
1. Lursailak eta eraikinak	865.255.137,27	811.171.459,91
2. Instalazio teknikoak eta makineria	46.174.354,03	43.405.666,86
3. Tresneria eta altzariak	232.277.359,11	221.181.992,14
4. Bestelako ibilgetua	186.876.552,90	181.405.648,21
V. Finantza-inbertsio iraunkorrak	381.288.677,98	334.552.347,21
1. Epe luzerako baloreen zorroa	293.686.755,98	265.054.225,42
2. Epe laburreko bestelako inbertsio eta kredituak	98.754.232,46	76.410.863,26
3. Epe luzerako eratutako fidantza eta gordailuak	25.699,76	25.699,76
4. (Hornidurak)	-11.178.010,22	-6.938.441,23
C) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	898.023.635,31	631.813.053,01
I. Izakinak	8.884.377,07	5.706.637,76
2. Lehengaiak eta beste hornigai batzuk	8.884.377,07	5.706.637,76
II. Zordunak	158.102.279,86	163.628.610,20
1. Aurrekontuko zordunak	295.468.747,22	298.048.971,84
2. Aurrekontukoak ez diren zordunak	87.958,47	208.912,90
3. Beste ente publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko zordunak	1.403.233,73	576.020,30
5. Beste zordun batzuk	1.139.132,32	15.347.234,34
6 (Hornidurak)	-139.996.791,88	-150.552.529,18
III. Aldi baterako inbertsio finantzarioak	729.897.679,18	461.969.424,77
2. Epe laburrerako bestelako inbertsio eta kredituak	729.894.360,84	461.965.265,01
3. Epe laburrerako eratutako fidantza eta gordailuak	3.318,34	4.159,76
IV. Diruzaintza	1.139.299,20	508.380,28
Guztira, orokorrean (A+C)	2.609.895.716,60	2.223.530.167,34

PASIBOA	2005eko ekitaldia	2004ko ekitaldia
A) FUNTS BEREKIAK	1.376.840.326,17	879.691.782,32
I. Ondarea	933.377.053,24	873.627.856,62
1. Ondarea	933.377.053,24	873.627.856,62
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-53.685.322,01	34.165.096,79
1. Aurreko ekitaldietako emaitza positiboak	-53.685.322,01	34.165.096,79
IV. Ekitaldiko emaitzak	497.148.594,94	-28.101.170,90
C) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	583.052.622,01	528.772.800,87
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	557.503.631,32	503.174.871,04
1. Obligazioak eta bonoak	557.503.631,32	503.174.871,04
II. Epe luzeko bestelako zorrak	25.548.930,20	25.597.869,34
2. Bestelako zorrak	24.838.593,86	24.850.443,97
4. Epe luzerako jasotako fidantza eta gordailuak	710.336,34	747.425,37
Akzioen gaineko ordainketa eskatu gabeak, egiteko daudenak	60,49	60,49
D) EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK	650.002.768,42	815.065.584,15
I. Obligazioen eta bestelako balore negoziagarrien jaulkipenak	83.871.239,17	138.232.783,46
1. Epe laburreko obligazioak eta bonoak	83.871.239,17	138.232.783,46
III. Hartzekodunak	566.131.529,25	676.832.800,69
1. Aurrekontuko hartzekodunak	549.221.306,88	668.065.646,83
3. Beste ente publiko batzuen konturako baliabideak administratzeagatiko hartzekodunak	7.013.695,69	3.393.602,48
4. Administrazio publikoak	3.076.453,87	2.020.129,35
5. Beste hartzekodunak	4.490.286,85	2.099.952,06
6. Epe laburrean jasotako fidantza eta gordailuak	2.329.785,96	1.253.469,97
Guztira, orokorrean (A+C+D)	2.609.895.716,60	2.223.530.167,34

V.3. EMAITZEN KONTUA (eurotan), 2005eko ABENDUAREN 31n

ZORRA	2005eko ekitaldia	2004ko ekitaldia
A) GASTUAK		
2. Hornidurak	147.325.109,45	118.297.926,56
b) Ekitaldiko kontsumoak	142.747.289,90	114.498.761,90
c) Kanpoko beste gastu batzuk	4.577.819,55	3.799.164,66
3. Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk	1.041.473.963,65	971.286.927,26
a) Langileen gastuak.		
a.1) Soldatak eta ordainsariak	694.139.637,35	653.765.406,27
a.2) Gizarte zamak	123.749.598,91	112.734.209,31
b) Gizarte prestazioak	42.625.337,92	39.886.853,92
d) Trafiko horniduretako aldaketak		
d.1) Hornigaien bariazioa eta kobraezinak diren kredituen galerak	-10.554.879,23	-15.846.702,77
e) Beste kudeaketa-gastu batzuk		
e.1) Kanpoko zerbitzuak	139.470.126,64	127.757.604,51
e.2) Tributuak	10.144,72	39.198,35
f) Finantza gastuak eta antzekoak		
f.1) Zorrek direla eta	46.712.606,56	47.938.172,95
g) Finantza-inbertsioen probisioen aldaketa	5.321.390,78	5.012.184,72
4. Transferentziak eta dirulaguntzak	1.813.217.504,66	1.479.416.131,37
a) Transferentzia arruntak	1.314.729.085,67	1.207.763.893,38
c) Kapital-transferentziak	498.488.418,99	271.652.237,99
5. Ez-ohiko galera eta gastuak	199.477.016,15	162.698.257,19
a) Ibilgetutik heldu diren galerak	0,00	870.002,87
c) Aparteko gastuak	142.924.146,51	123.173.350,10
d) Beste ekitaldi batzuetako gastu eta galerak	56.552.869,64	38.654.904,22
Saldo hartzekoduna (aurrezkia)	497.148.594,93	
Zorrek, guztira	3.698.642.188,84	2.731.699.242,38

HARTZEKOA	2005eko ekitaldia	2004ko ekitaldia
B) DIRUSARRERAK		
1. Kudeaketa arrunteko dirusarrerak	3.124.723.320,42	2.542.186.925,86
a) Tributu-dirusarrerak		
a.1) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga	999.291.557,53	750.148.083,53
a.2) Sozietateen gaineko zerga	472.569.336,38	337.084.487,12
a.3) Oinordekotzaren eta dohaintzen gaineko zerga	24.368.165,92	22.681.435,92
a.4) Ondarearen gaineko zerga	43.742.740,23	42.273.759,82
a.9) Ondare-eskualdatzeen eta EJDaren gaineko zerga	132.632.952,77	110.058.074,83
a.10) Balio erantsiaren gaineko zerga	991.069.261,13	828.942.136,08
a.11) Zerga bereziak	438.656.329,48	428.534.466,48
a. 14) Balioak gaurkotzearen gaineko karga	9.825,59	24.590,64
a.15) Zerbitzugintzaren gaineko tasak	15.877.640,31	16.501.429,24
b) Gizarte kotizazioak	4.144.888,50	4.396.022,95
c) Zerbitzuak ematea		
c.1) Zerbitzuak emateko prezio publikoak	2.360.622,58	1.542.439,25
2. Kudeaketa arrunteko beste dirusarrera batzuk	129.894.573,63	67.708.429,52
a) Itzulketak	6.763.936,85	8.931.154,79
b) Salmentak eta zerbitzuak ematea	14.679.111,53	12.746.393,76
c) Kudeaketaren ondoriozko beste dirusarrera batzuk		
c.1) Dirusarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	30.493.544,66	28.677.565,72
d) Kapitaleko parte-hartzeengatikoko dirusarrerak	65.418.740,73	7.497.963,13
f) Beste dirusarrera finantzario batzuk		
f.1) Beste interes batzuk	12.521.316,19	9.838.319,34
f.2) Inbertsio finantzarioetako mozkinak	17.923,67	17.032,78
3. Transferentziak eta dirulaguntzak	88.689.371,17	72.969.134,54
a) Transferentzia arruntak	44.142.880,16	32.730.513,72
b) Kapital-transferentziak	44.546.491,01	40.238.620,82
5. Ez-ohiko irabazi eta dirusarrerak	355.334.923,62	20.733.581,56
a) Ibilgetutik heldu diren etekinak	6.768.453,99	1.469.724,80
d) Beste ekitaldi batzuetako dirusarrerak eta etekinak	23.438.327,53	19.263.856,76
e) BEZa itzultzeko sortzapenaren irizpidearen aldaketa	325.128.142,10	
Saldo zorduna (desaurrezkia)		28.101.170,90
Hartzekoa, guztira	3.698.642.188,84	2.731.699.242,38

VI. HITZARMEN EKONOMIKOA

Nafarroak Estatuko zama orokorretarako egiten duen ekarpena bosturtekoen arabera kalkulatu da. Oinarrizko urterako, bi administrazioek hala erabakita, hasierako ekarpena kalkulatu bideratuko duen egozpen indizea ezartzen da, eta bosturtekoaren gainerako urteetarako zenbateko hori gaurkotuko da, bi tributu-administrazioen dirubiltzaren arabera.

2005a bosturtekoaren oinarrizko urtea da. Hala eta guztiz ere, administrazio zentralak eta foru administrazioak ez dute akordiorik egin ekarpenaren kalkulua egiteko erabili beharreko indize eta parametroak zehazteko; hori dela eta, kalkulu hori behin-behinekoa da.

Ondoren, hitzarmen ekonomikoaren ondoriozko gastu eta dirusarreraren datuak aurkezten ditugu, aurreko ekitaldikoekin alderatuta.

Kontzeptua	2004		2005	
	Dirusarrerak	Gastuak	Dirusarrerak	Gastuak
Estatuko tributu-eta partaidetza	61		48	
BEZaren doiketa	218.479		219.075	
Hidrokarburoen doiketa	(34.707)		(38.171)	
Tabakoaren doiketa	40.966		27.960	
Alkoholaren eta tarteko produktuen doiketa	(51.673)		(52.982)	
Garagardoaren doiketa	(1.127)		(1.008)	
Karga orokorren ekarpena		485.087		524.867
Guztira	171.999	485.087	154.922	524.867

Kontuan hartu behar da 2005eko kopuruak behin-behinekoak direla, harik eta 2005etik 2009ra bitarteko bosturtekoaren indizeak eta parametroak gaurkotzen diren arte.

VII. ENPRESEN SEKTORE PUBLIKOA

Nafarroako Gobernuak gehieneko partaidetza dauka 30 enpresatan. Aurreko urtearekin alderatuta, bi alta gertatu dira: Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A. (Sprin) eta Riegos del Canal de Navarra, S.A.; eta baja bat ere izan da: Autopistas de Navarra S.A., gobernuak partaidetzaren gehienekoa ez duelako.

Enpresa horiek aipatzeko moduko ondoko zenbatekoak dauzkate:

	Euroak, milioitan
Dirusarrerak	216
Gastuak	224
Emaizta	-2
Ondarearen garbia	474
Zorpetzea e/l	135
Langileak	939
Jasotako dirulaguntzak	20

Aurreko ekitaldiaren aldean aipagarrienak diren alderdiei dagokienez, adierazi behar dugu langile-

en kopuruak behera egin duela, funtsean Audenasa ez delako enpresa publikotzat hartzen; eta emaitzaren aldaketa (2004an 253 milioiko etekina izan zen), zeren eta 2004an aparteko etekin bat lortu baitzen, EHNko akzioen salmentari esker.

2005eko ekitaldiko auditoria txostenetatik, ondokoa ondoriozta daiteke:

- Hogeita bat enpresatan iritzia aldekoa da.
- Zazpi enpresatan iritzia aldekoa da, baina salbuespen batzuekin.
- Potasas de Subiza enpresan auditoreak ezezkoa eman dio iritzia emateari.
- Riegos del Canal de Navarra enpresak ez du auditoriako txostenik, zeren eta 2005eko azaroan eratu baitzen, eta urte horretan ez du eragiketarik egin.

Oroitidazkiko 135. orrialdeetan eta ondorengoetan enpresen sektoreari buruzko informazio laburtua aurkezten da, eta euskarri digitalean enpresa guztien auditoriak (informazio hori <http://centdes04/prm/CuentasGenerales/home.htm> helbidean aurki daiteke).

Nafarroako Gobernuak gutxiengo partaidetza dauka ondoko enpresetan: Canal de Navarra, Opposa, Mercalruña, Convención Bureau S.A., Sonagar eta Autopistas de Navarra.

VIII. ZERGA-GASTUEN AZTERKETA

Zerga-gastuei buruzko definizio bat egitekotan, esan daiteke tributuaren berezko egituratik desbideratzen diren salbuespen eta hobari, murrizketa eta zerga-arinketak direla, zeinak errenta edo jarduera jakin batzuen aldeko bereizkeria bat egiten duten, helburu ekonomiko edo sozial batzuk lortze aldera.

Hau da, teorikoki lor zitzakeenen aldean Ogasunak lotzen dituen dirusarrera txikiagoei dagokie; horrenbestez, gastuei edo zerga-onurei buruz hitz egin daiteke, ikuspuntuaren arabera.

Arau indardunen arabera, gastu edo zerga-onurei buruzko aurrekontu bat aurkeztu behar da aurrekontuen oroitidazkiarekin batera.

2005eko ekitaldirako aurrekontuei buruzko Foru Legeak Ogasunari buruzko legea aldatu zuen, hain zuzen ondoko alderdietan:

«34. artikulua. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aldaketa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 38. artikulua 3. idatz-zatia aldatzen da, eta foru lege honek indar hartzen duenetik aurrera hau izanen da:

3. Artikulu honen ondorioetarako, zenbateko osotzat honako hau ulertuko da⁽¹⁾:

– Obligazio onartuen kasuan, bidezko diren salbuespen eta hobariak aplikatu ondoko emaitza.

– Eskubide likidatueta, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen gastu-aurrekontuko gastuen egoera-orrian, bidezko izanik ere, onura fiskal gisa jasota ez dauden salbuespen eta hobariak aplikatu ondoko emaitza”.

Aurrekontuei buruzko legeko hurrengo artikulurako, zerga-onuren kontusailen funtzionamendua arautzea.

35. artikulua. Onura fiskaletarako kontusailak.

Izen hauek dituzten kontusailak:

“Etxebizitza-errentamenduen gastu fiskalak”, “Ohiko etxebizitzarako inbertsioaren gastu fiskalak”, “Enplegu sorreraren gastu fiskalak”, “Inbertsioen gastu fiskalak”, “I+G+Bko inbertsioen gastu fiskalak”, “Alarguntza pentsioengatikoen kenkarietatik sorturiko gastu fiskalak” eta “Interes Kulturalako

Ondasunetako inbertsioen gastu fiskalak” zertarako onartu diren hartarako baizik ezin dira erabili, hots, haiei loturiko onura fiskala biltzeko. Ez dira gutxituko, ez aurrekontu-doiketagatik ere, beste inolako xederik finantzatzeko.»

Horiek dira zenbait zerga-gastu aurrekontuko gastuen edo dirusarreraren kontusailtzat kontabilizatzeko egin beharreko lege aldaketak.

2005eko zerga-onuren aurrekontua 1.266.248 mila eurokoa izan zen, hain zuzen ere aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko 30 gehi zerga-gastuak.

Zerga-onuren aurrekontua egiteko, departamentuak eskura dauden azken datuak erabiltzen ditu. Kasu honetan, 2004ko urrian, 2003ko PFEZaren datuak erabil daitezke (2004ko ekainean itxitako kanpaina), eta 2002ko sozietateen gaineko zergenak, zeren eta zerga hori, normalean, PFEZa baino beranduago prozesatzen baita. Kalkulua egiteko, KPIaren eta BPGaren aurreikuspenak hartzen dira kontuan, eta haiekin gaurkotzen dira datuak.

Gaur arte, eta estatuko beste administrazio batzuetan eta gure inguruko herrialde batzuetan gertatzen den bezala, zerga-onuren aurrekontua ez da ez egin eta ez aurkeztu. 2005eko ekitaldian, aurrekontuan jasotako kontusailei dagozkien zerga-gastuak kalkulatu dira.

PFEZaren ondoriozko gastuak kalkulatzeko, simulazio bat egiten da, non deklarazio guztiak erabiltzen baitira (datu basean sartu ez diren eskuzko deklarazio batzuk alde batera uzten dira).

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, ez da simulazioa erabiltzen, baizik eta deklarazioetako laukien batura, zeren eta zergadunak muga aplikatu behar baitu. Zerga honetan, arazo txiki batzuk egoten dira bi arau egotearen ondorioz (foru araua eta estatukoa), horrek berekin ekartzen baitu beti deklarazioetako lauki guztiak zuzen ez betetzea.

Datuen egiaztapenak tributuei buruzko fitxategien izaera dinamikoaren baldintza dauka, fitxategi horiek etengabe aldatzen ari baitira.

Hori guztia dela eta, ikuspuntu orokor batekin, esan daiteke aurrekontu-betetzean sarturiko datuak arrazoizkoak direla.

Kontabilitateko datuen arabera, honakoak izan dira kontabilizaturiko kopuruak:

(1) Hirugarren puntu honek honako testua zuen lehenago: Artikulu honen ondorioetarako, zenbateko osoa bidezko diren salbuespen eta hobariak aplikatu ondoko emaitza izanen da.

Kontzeptua	Kontabilizaturiko zerga-gastuak	Aurrekontuetako gastuak
Etxebizitzen alokairua	3.815.675	2.499.336
Etxebizitzako inbertsioa	116.159.322	43.232.278
Enplegua sortzea	14.749.229	
Inbertsioa	67.233.946	46.633.966
I+G+Bko inbertsioa	15.673.173	15.026.969
Alargun pentsioak	4.114.860	
Kultur ondasunak	5.882	
Guztira	221.752.087	107.392.553

Datu horietatik ondoriozta daitekeen bezala, kontusail horien multzorako zerga-gastua aurrekontu-gastu tradizionalaren bi halako da.

Zalantzarik gabe, zerga-gastuak aurrekontuan sartzeak informazio gehiago ematen du, zeren eta kontuan hartzen baitira ez soilik politika jakin batean eragina duten gastu zuzenak, baizik eta, baita ere, zerga-politika horren ondorioz lorturiko dirusarrera uste baino txikiagoak.

Informazioaren hobetze horrek bidea eman behar dio Nafarroako Parlamentuari baloratzeko ea jarduera jakin batzuetarako jartzen dituen baliabideen bolumena, eta haiek dirulaguntzen bitartez edo Ogasunerako dirusarrera txikiagoen kargura emateko modua, egokienak ote diren aurreikusitako helburuak erdiesteko.

Zerga-gastuak aurrekontuetan sartzeari Albiñana⁽²⁾ bezalako autoreek defenditu izan dute. Nazioarteko erakunde jakin batzuek gomendatzen dute zerga-onuren aurrekontua egitea, baina ez berariaz sartzeari aurrekontuan.

Gure iritziz, positiboki baloratu behar da zerga-gastuak direla eta eginiko jarduera, nahiz eta adierazi beharra daukagun aurrekontuko exekuziotik ez dela zuzenean eratoritzen administrazioaren jarduera ekonomikoa ulertzea, zeren eta berariazko moduan aurkeztu behar baita; eta gainerako administrazioen irizpideak hausten direla, eta hartara konparazioa zailtzen dela, tributu bidezko dirusarrerak handitzen baitira; aurrekontuan ez direla zerga-gastu guztiak aurreikusten; eta zerga-gastuak aurrekontuan sartzekoan zerga-gastuen aurrekontua deuseztatu beharko liratekeela, bikoiztasuna saihesteko –horrekin, zailago egiten da dokumentu horren konparazioa.

Kontabilitatearen ikuspuntutik, kontuan hartu behar da zerga-gastuen kontusail horiek aurrekontuko kontusail gisa sartzeari, aurrekontuko garbian

eragina ez badu ere (zenbateko horiek berak gastu eta dirusarrera gisa erregistratzen dira), zalantzarik dela aurrekontuaren ikuspuntutik, horren funtzionamendua ez baita arautu.

Hartara, esan dezakegu estuestuan ez dela transferentzia bat, eta ez duela ezarritako prozedura betetzen, eta haren zenbatekoa ez dela mugagabea, eta ez dela zuzenean administrazioa haiek ematen dituen, nahiz eta zuzenean asimilatu daitekeen dirusarrera handiagoengatik kredituen sorrerarekin. Azken batean, aztertu nahi da dirusarrera txikiago bat, aurrekontuaren ikuspuntutik, gastu bat den.

Hori guztia dela eta, Comptos Ganbera honen iritziz komenigarria da aurrekontu-informazioa hobetzeko hasitako prozesuari jarraipena ematea, harik eta zerga-onuren aurrekontuan sartzen diren kontzeptu guztien likidazioa osatu arte. Horrek informazio baliotsua emanen lioke Parlamentuari, zeren eta haren zenbatekoak, gutxi gorabehera, baliabide publikoen ehuneko 30era iristen baita.

Aurkezpenaren ikuspuntutik, kontabilitatearen arloko arauetan (Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra edo antzeko beste bat) kontzeptu horien funtzionamendua erregulatzen ez den bitartean, gure ustez gogoeta egin behar da jakiteko hori den informazioa aurkezteko modu egokiena edo beste alternatiba batzuk badauden. Hartara, adibidez, gure ustez, zerga-onuren aurrekontuaren likidazioa kontu orokorretako atala izan baina bereizita dagoen dokumentu baten gisara egin liteke.

Dokumentu horretan, zerga-gastuak irizpide batzuen arabera bereiz litezke; esate baterako: antzeko aurrekontu kontusailak egotea, kalkulatzeko zailtasuna, Nafarroak haiek ezartzeko ahalmena izatea ala ez izatea, eta abar. Gainera, beste dokumentu bat gehitu beharko litzateke, non ahal den modu errazenean ikusiko den zenbait politika publikok kutxa publikoetarako daukaten kostu erre-

(2) *El Presupuesto de Gastos fiscales. César Albiñana. Presupuesto y Gasto Público, 1. zenbakia. 1979. 45. orrialdea eta hurrengoak.*

ala, aurrekontu-gastuen eta zerga-gastuen ondorioz.

Hori guztia arduradun publikoek ahal den informazio handiena izan dezaten kolektiboen beharrei hobeki egokitzen zaizkien aukerak hautatzeko garaian.

IX. O-NOZeko ALDI BATERAKO LANGILEEN KONTRATAZIOEN AZTERKETA

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako datuak hartu ditugu abiapuntu. Datu horiek zerbitzu horren kontratuen erregistrotik lortu dira, eta 2005ean indarra zuten kontratuei buruzkoak dira; horietatik, betiere, hogeitaz erregistro kendu dira izenetan akatsak zeudelako. Informazio horrekin, O-NOZen 2005eko kontratuei buruzko azterlan bat egin dugu, baina kontratazioaren legezko alderdiak aztertu gabe.

2005ean iraun zezaten, urte hori baino lehen eginiko kontratuei 2005eko urtarrilaren 1eko hasiera eman zaie, eta 2005etik aurrera eginikoei 2005eko abenduaren 31ko data eman zaie.

Hona hemen laburpen orokorra:

Zenbat kontratu	44.717
Pertsona-kopurua	5.954
2005eko iraupen egunak, guztira	1.563.207
Pertsona bakoitzeko kontratuak, batez beste	7,5
2005eko batez besteko iraupena (egunak)	35
Pertsona baten kontratuak, gehenez ere	189

44.717 kontratuetatik, ehuneko 8,2k, hau da 3.668 kontratuk, 2005eko abenduaren 31 baino geroagoko amaiera data dute; horietatik, 2.494 2005ean hasi ziren eta gainerakoak, 1.174, 2004an.

Kontratuen kopuruari eta haien iraupenari erreparatuz gero, zentroen arabera honako banaketa topatuko dugu:

Zentroa	Zenbat kontratu	Ehunekoa	Zenbat egun	Ehunekoa	Batez besteko iraupena
Laguntza espezializatua	5.702	13	185.095	12	32,46
Oinarrizko osasun laguntza	14.300	32	253.253	16	17,71
Lizarrako osasun eskualdea	2.392	5	114.828	7	48,00
Tuterako osasun eskualdea	6.514	15	141.408	9	21,71
Ubarmin Klinika	1.690	4	36.380	2	21,53
Nafarroako Ospitalea	5.064	11	391.915	25	77,39
Bideko Ama Birjina Ospitalea	8.643	19	411.476	26	47,61
Osasun Publikoaren Institutua	375	1	20.649	1	55,06
Zerbitzu zentralak	37	0	8.203	0	221,70
Guztira	44.717		1.563.207		34,96

Kontratu horiek 114 eginkizun desberdinetarako egin ziren, batzuk osasun arlokoak eta beste batzuk beste arlo batzuetakoak. Funtzio horietatik, hauek dira nagusiak:

Eginkizuna	Kontratuak, ehuneko	Iraupenaren ehunekoa
OLT/EDU	30	27
Administrari laguntzailea	16	12
Erizaintzako laguntzailea	15	16
APEko medikua	11	5
Zerbitzu anitzetako langilea	5	7
Zeladoreak	5	7
APEko pediatra	4	1
Honaino, guztira	86	75

Kontratazio multzoei erreparatuz gero, 44.717 kontratuak honela banatzen dira:

	Kontratuak, ehuneko	Iraupenaren ehunekoa
Hutsak	4	26
Egiturazkoa	27	25
Betetako lanpostuen ordezkioak	61	23
Gordetako lanpostuak ordezkatzeari	7	19
Kanpainak	1	7
Guztira	100	100

Iraupenari erreparatuz gero, azpimarratu beharra dago 44.717 kontratuetatik ehuneko 81k hilabete baino gutxiagoko iraupena izan dutela; ehu-

neko hiruk, berriz, urte osoan iraun dute. Hilabete baino iraupen laburragoak honela banatzen dira:

Iraupena	Kontratu kopurua	Ehunekoa
Egun bat	16.815	38
2-7 egun	12.980	29
8-30 egun	6.254	14
Honaino, guztira	36.049	81

Kontratuen iraupena zentron arabera konparatuz gero, hilabete baino iraupen laburragoak

eta 2005eko urte osoan iraun zutenak kontuan hartuta, honelako datuak lortuko ditugu:

	Egun bat		2- 7 egun		8- 30 egun		365 egun	
	Zenbat	%	Zenbat	%	Zenbat	%	Zenbat	%
Laguntza espezializatua	1.753	31	1.774	31	937	16	84	1
Oinarrizko osasun laguntza	8.869	62	3.204	22	1.077	8	254	2
Lizarrako osasun eskualdea	658	28	670	28	405	17	99	4
Tuterako osasun eskualdea	2.798	43	2.055	32	838	13	105	2
Ubarmin Klinika	423	25	788	47	259	15	17	1
Nafarroako Ospitalea	356	7	1.132	22	1.262	25	369	7
Bideko Ama Birjina Ospitalea	1.867	22	3.227	37	1.407	16	507	6
Osasun Publikoaren Institutua	91	24	130	35	67	18	28	7
Zerbitzu zentralak	0	0	0	0	2	5	15	41

Egun bakarrek kontratuak guztizkoaren ehuneko 38 egiten dute, eta horietatik erdia baino gehiago oinarrizko osasun laguntzan egiten dira.

Zentroei erreparatuta, astebete baino iraupen laburragoko kontratuak kasu guztietan, salbu eta zerbitzu zentraletan, non halakorik ez baitago, eta Nafarroako Ospitalean, non ehuneko 29 baitira, zentro bakoitzean eginikoen erdia baino gehiago dira; oinarrizko osasun laguntzan, sinaturiko guztien ehuneko 84 izatera iristen dira.

Urtebeteko kontratuei dagokienez, zerbitzu zentraletakoak aipatu behar dira, zeren eta eginiko kontratu guztien ehuneko 41 baitira, eta Nafarroako Ospitalekoak eta Osasun Publikoaren Institutukoak, non zazpi baitira, eta Bideko Ama Birjina Ospitalekoak, non sei kontratu egin baitziren.

Egun baterako egin ziren 16.815 kontratuetatik, ehuneko 55 betetako lanpostuetan ordezkapenak egiteko sinatu ziren; ehuneko 40 egiturazko kontratuak izan ziren, eta gainerako ehuneko 5a gordetako lanpostuetan ordezkapenak egiteko egin ziren.

Kontratutako pertsonen buruzko informazioa aztertuta, ikusi dugu 5.954 pertsona kontratatu direla; horietatik 2.098 pertsonari (ehuneko 35) kontratu bakarra egin zaie; 2.674 pertsonari (ehuneko 45) 2 eta 10 kontratu bitarte egin zaizkie; eta 18 pertsonari (oinarrizko osasun laguntzako sendagileak) 100 kontratu baino gehiago egin zaizkie; azkenik, pertsona bakarrari 189 kontratu egitea da gehienekoa.

O-NOZek emandako informazioa, kontuan hartuz gero langile finkoak eta urterako kontratua duten langileak, batez beste dauden langileak 8.600 dira; horietatik, 5.100 langile finkoak dira. Hau da, 44.717 kontratu horiek, gutxi gorabehera, lanaldi osoko 3.500 pertsonaren beharra dagoela esan nahi du.

Datu horien balorazio egokia egiteko erreferentziako informazioa behar da, konparazioa egin ahal izateko. Bestalde, zalantzarik gabe oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua emateko zailtasunak daude; izan ere, batez ere oinarrizko osasun laguntzaren arloan, lanera edozer dela-eta joaten ez diren langileak berehala ordeztu behar dira.

Hala eta guztiz ere, gure ustez, ikusita zerbitzua edo osasun laguntza bermatzeko eginiko kontratuen kopurua, aztertu beharko litzateke, batetik kontratazio bolumen horrek zerbitzua emateko kalitatean eraginik baduen, eta, bestetik, horrek sortzen duen administrazio-lanaren zama, eta, kasua bada, beste antolamendu eredu batzuk hautatzeko aukera, hain zuzen ere kudeaketa eta

osasun laguntzaren kalitatea bermatze aldera, langileengan ere horrek guztiak duen eragina ahaztu gabe.

X. AURREKONTU-PROGRAMEI BURUZKO AZTERKETA

III.2 epigrafean (mugak) aipatutakoa kontuan hartuta, azterketa labur bat egin dugu aurrekontu-programei buruz eta oroitidazkiari buruz; ondoren laburbiltzen dugu hori:

X.1. AURREKONTU PROGRAMEI BURUZ

Salbuespen batzuk gorabehera, guztiek honakoak biltzen dituzte:

- a) Giza-baliabideen zerrenda.
- b) Aplikatzekoak diren arauak.
- c) Programako gastuak eta dirusarrerak.

- Oro har, zuzendu edo aldatu nahi den egoerak programako ardura duen unitateak, xehetasun gutxi-askorekin deskribatu denak, esleituta dauzkan jarduera edo funtzio orokorrak islatzen ditu.

- Helburuak eta ekintzak modu orokorrean deskribatzen dira, eta, batzuetan, bereizi gabe zein diren aurreikusitako helburuak eta zein egin beharreko ekintzak. Programa askotan, zerbitzuak betetzen dituen funtzioak deskribatzen dira, zehaztu gabe funtzio horiekin helburu jakin batzuk lortu nahi direla, edo helburu horiek zein diren.

- Aurrekontuetan baliabide berekiak dituzten programak zehazten dira. Oroitidazkian, ia ez dira aipatzen baliabide horiei dagozkien dirusarrerak, ez eta haiek zein mailatan erabiltzen diren ere.

- Ia aurrekontu programa guztietan, programa horien jarduera neurtuko duten adierazleak jasotzen dira; haien ehuneko 50 inguru kuantifikatu gabe.

X.2. PROGRAMEN OROITIDAZKIEI DAGOKIENEZ

- Ez dago irizpide finkorik oroitidazkiak programak direla-eta izan behar duen edukiaren gainean.

- Oro har, programek, oroitidazkian, ez dute aurrekontu-betetzeari buruzko informaziorik biltzen. Informazioa biltzekotan, inbertsio edo programen kostuari buruzkoa da, bai eta laguntzen eta dirulaguntzen betetzearen zenbatekoari buruzkoa ere.

- Oroitidazkian emandako informazioan, oro har, ez dira aurrekontuetan adierazitako helburuak

eta ekintzak aipatzen; eduki handiagoa duten programetan, programaren ardura duen unitateak dauzkan funtzioen betetzeari buruzko datuak ageri dira, eta, batzuetan, egindakoen informazio zehatz eta erabatekoa ere bai, betiere hasierako egoerarekin konparaziorik egin gabe eta proposatutako helburuen betetze maila zehaztu gabe.

- Arestian aipaturiko gabeziak gorabehera –gure iritziz funtsezkoak dira aurrekontu-programen kudeaketaren prozesua ezagutzeko–, Nekazaritza, Herri Lan eta Industria departamentuek programei buruzko informazio egokiagoa ematen dute.

X.3. AURREKONTUEI ETA PROGRAMEN OROITIDAZKIEI DAGOKIENEZ

Aurrekontuetan, 103 programa daude; Kontu Orokorretan, ordea, 54. Horrenbestez, programa horien ehuneko 51ri buruzko informazioa dauka-gu.

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da ezen, aurrekontu osoa programen arabera egiterakoan, batzuek gutxieneko edukiak dituztela; esate baterako departamentuetako zuzendaritza nagusiei buruzkoak.

Logikoa denez, aurrekontuko programen eta oroitidazkiko programen arteko konparazioa egin ez lorturiko ondorioetan, honakoak hartu behar dira kontuan:

Aurrekontuetan, helburuak eta ekintzak deskribatzen dira, modu oso orokorrean bada ere; aurrekontuetako oroitidazkiak oso programa gutxitan aipatzen dira helburuak eta ekintzak.

Adierazleei buruz aurrekontuetan jasotako aurreikuspenak nahikoa aldentzen dira haiei buruz oroitidazkian jasotako informaziotik.

Oroitidazkian emaniko informazioak ez du loturirik aurrekontuetan adierazitako egoera, helburu eta ekintza, adierazle edo aurreikuspenekin.

Programa jakin batzuetan, ekitaldian zehar aurreikusi eta erdietsi diren helburuak aipatzen dira; aipamen horiek, ordea, ezinbestekoak izan beharko lukete eginiko kudeaketa ezagutzeko, erreferentziako oinarrizko puntu batekin, eta hasierako egoera eta amaierakoa deskribatu beharko liriteke, haiek konparatu eta aztertu ahal izateko.

Esan dezakegu, Gizarte Ongizate Departamentuan, oroitidazkiko programek adierazleei buruzko informazio kuantitatiboa jasotzen dutela. Adierazle horiek, ordea, kuantifikatu gabe jasotzen dira aurrekontuetan, eta, horrenbestez, ezin da inongo konparazio-azterketarik egin.

Laburbilduz, gure ustez aurrera egin behar da aurrekontu-programen lanketan, bai programen helburuen eta adierazleen eta kostuen aurkezpenari eta jarraipenari dagokionez, baita haiek aurreikusitako helburuetan dauzkaten emaitza eta eraginari dagokienez ere.

XI. GOMENDIO OROKORRAK

Jarraian, hainbat gomendio agertzen dira, eginko lanaren ondoriozkoak, eta horien artean sarturik daude beste ekitaldi batzuetan eginak izanik oraindik bete gabe daudenak:

Gomendio horiek berez dakarte kudeaketa hobetzeko neurriak aplikatzea eta arlo horri buruzko araudia betetzea.

XI.1. AURREKONTUAK ETA KONTU OROKORRAK

- *Ogasun publikoari buruzko Foru Legearen edukia egokitzea, batez ere ondoko arloetan:*

a) *Aurrekontu orokorretan eta kontu orokorrean sartu beharreko ente eta erakundeak, foru erkidegoko administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean Foru Komunitateko sektore publikoari buruz ematen den definizioaren arabera.*

b) *Foru erkidegoko sektore publikoaren ekonomia- eta finantza-jarduera guztiaren eta ondaregoeraren kontabilitate-informazio bateratua.*

c) *Aurrekontuaren luzapena arautzea.*

- *Ekitaldiko oroitidazkiari eranstea ekitaldi bakoitzean betetako jarduera hobeki ulertzeko eta hura gardenago egiteko lagungarri diren datu eta informazio guztiak. Hartara, beharrezkoa da honakoak eranstea:*

a) *Aurrekontuko emaitza, kontabilitate publiko-ko plan indardunak adierazten dituen egiturarekin eta doikuntzekin bat*

b) *Diruzaintzako gerakinari buruzko egoerorra, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 31ko finantza egoeraren adierazgarria eta hurrengo ekitaldi-*etako balizko aurrekontu-aldaketak finantzatzeko iturria.**

c) *Aurrekontuen likidazioari buruzko egoerorrietan, kobrantza eta ordainketei buruzko informazioa, bai eta baliogabeturiko edo gehitutako kredituen gerakinei buruzkoa ere.*

d) *Foru sektore publikoari buruzko finantza egoera orokorra, administrazioa, erakunde eta enpresa publikoak eta bestelako enteak ere barnean hartuz.*

e) Kontabilitate nazionaleko terminoetan emaitzei buruz Ekonomia eta Ogasun Ministerioak kalkulaturiko datuak.

f) Zordunen eta hartzekodunen saldoen eta bilakaeraren azterketa zehatza –ekitaldi indardunekoak nahiz itxiako ekitaldietakoak–, egindako kudeaketaren kalitatea ebaluatu ahal izateko.

g) Urte anitzeko herri lan handien egoera.

h) Etorkizuneko ekitaldietarako hartutako konpromisoari buruzko informazioa zabaltzea, batez ere lan handiei dagozkienak, eta, kasua bada, haiek ohar gida adieraztea.

i) Ondarearen gaineko zergari eta PFEZari buruz gehitutako datuez gainera, BEZari buruzkoak eta Sozietateen gaineko zergari buruzkoak.

j) Hitzarmen Ekonomikoak sortutako fluxuen laburpena aurkeztea.

k) Zerga gastuen aurreikuspenen jarraipena.

- Ekitaldiko gastu guztiak kontabilizatu behar dira, eta, aurrekontu nahikoarekin egiten ez badira, "Aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketen zordunak" kontabilitate orokorraren kontua erabiltzea.

Aurrekontuan superabita lortuz gero, aurrekontu-kontabilitatean gastu guztiak erregistratzeko modua aztertzea, nahiz eta gastu zabalgarritzat ez hartu.

- 2005-2009 bosturtekorako Hitzarmen Ekonomikoaren egozpen-adierazleak eta parametroak gaurkotzea.

- Aurrekontu-programen lanketa eta aurkezpena homogeneizatzea, nagusiki ondoko alderdietan: aurkeztu beharreko informazioa, helburuen eta adierazleen definizioa eta kalitatea, betetze mailaren jarraipena eta desbideratzeen azterketa.

- Kontabilitate sistema osatzea, halako moduan non funtsezko zerbitzu publikoen prestazioaren kostua lortu ahal izan den.

XI.2. KONTABILITATEAREN KUDEAKETA

- Nafarroako Foru Komunitatean aplikatuko den kontabilitate plana definitzea, halako moduan non kontuetan aurkezten diren egoera-orriak horren arabera izan diren eta aplikazio informatikotik zuzenean sortuko diren.

- Kontabilitate-arloko jarraibide batzuk prestatzea, honakoak barnean hartuko dituztenak, besteak beste:

a) Oinarrizko eragiketen kontabilitatea egiteko modua eta irizpideak; besteak beste, preskripzioak eta deuseztapenak.

b) Ekitaldia ixteko eragiketen normalizazioa.

c) Bateratzeko arauak, behin foru sektore publikoa zer den definitu eta gero.

- Foru funtzionarioen eskubide pasiboen sistematik dakartzan obligazio aktuarialak neurtu eta finantzen egoera-orrietan erregistratzea.

XI.3. KONTU-HARTZAILTZETA ETA BARNE KONTROLA

- Kontu-hartzaitzako langileen plantillan jasotako lanpostu guztiak behin betiko betetzea.

XI.4. LANGILEAK

- Helburuak betetzearekin loturiko lansari-osa-garriak banaka sortuko dira, helburu horien betetze mailaren arabera, eta ez banaketa linealaren arabera.

XI.5. KONTRATAZIOA

- Baldintza administratiboen orriak, ziurtagiriak ordaintzeko aldiari dagokionez, arauetan ezarritakoari egokitzea, onespina ematen duen ebazpenetik hasitako bi hileko epea kenduz.

XI.6. IBILGETUA

- Kontabilitate publikoko printzipioak aplikatzea ibilgetu materialeko elementuak erregistratzeko, ondoko alderdiak kontuan hartuz:

a) Haiek aitortzeko eta baloratzeko irizpide orokorrak, altetarako, bajetarako, gehikuntzetarako eta hobekuntzetarako ere.

b) Balorazioaren zuzentasunerako arauak eta prozedurak, ondasun horien amortizazioak eta gainerako balio-galerak islatzeko.

c) Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean ezarritako kontu berariazkoak erabiltzea, batetik erabilera orokorrari emandako ondasunak eta bestetik ibilgetu ez-materiala nahiz atxikitako eta lagatako ondasunak islatzeko.

- Ibilgetu materialeko kontabilitate-saldoak berrius eta behatu bitez, eta behar diren prozedura administratibo eta kontabilitatekoak ezar bitez bermatzeko saldo horiek izaera horretako ondasun-multzoa uneoro behar bezala islatzen dutela.

- Gobernuaren Ondareko ondasunen Inbentario Orokorra oinarri harturik, hura osatzea gaur egun jasota ez dauden ondasunekin (esate baterako, erabilera orokorrerako inbertsioak, ibilgetuak, higigarriak eta inbertsio finantzarioak), eta osagarri

gisa aplikatzea kontabilitate publikoko irizpideak, baloratutako inbentario horrek kontabilitate-saldok berma ditzan.

- *Ganbera honek behin eta berriro azpimarratzen ari den legez, kontabilitateko datuak eta inbentariokoak aldian-aldian bateratzeko aukera emanen duten prozedurak taxutzea. Horretarako, ukituriko zerbitzuen arteko koordinazio egokia eman beharko da.*

XI.7. TRIBUTUEN ARLOKO DIRUSARRERAK ETA ZORDUNAK

- *Tributu-zerbitzuek erregistraturiko eskubideen eta kontabilitate laguntzailean sortutakoen alderaketa edo berdinkatzea bermatuko duten prozeduren aplikazioa osatzea.*

- *Aztertzea zordunen kontuek zer saldo duten abenduaren 31n; batez ere, aspaldikoak direnek edo saldo hartzekoduna dutenek.*

- *Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzailea gaurkotzea jatorrizko garapenean jasotako egoera berriak agertzen direnean; izan ere, laurogeiko hamarkadakoa da. Komenigarria da erraztasunak ematea hura egungo kontabilitate sistemarekin koordinatzeko. Kontsulten sistema modernizatzeak ere abantailak izanen lituzke.*

XI.8. DIRUZAINNTZA

- *Bankuko kontuen datuak erregularizatzeko prozesua osatzea.*

- *Banku-berdinkatzeen orrietan inposizio kontuak sartzeta, eta dauden alde guztien azalpenak jasotzea.*

XI.9. ENPRESA PUBLIKOAK

- *“Sektore publikoaren kotizazio ofizialik gabeko akzioak” kontuko balioen artean dauden alde txikiak doitzea enpresen auditorietatik ondorioztatzen direnekin.*

- *Nafarroako Gobernuak VINSAren akzioak kontabilizatzeko erabiltzen duen balioaren eta doako kapital-zabaltzeen ondoriozko balio errearen artean dagoen aldearen arrazoiak oroitidazkian adieraztea.*

- *“Enpresa publikoentzako maileguak” kontuko saldoa doitzea enpresen balantzeetatik ondorioztatzen den saldoarekin.*

- *Convention Bureau bezalako enpresa publikoen gainean egin beharreko kontrola definitzea; izan ere, halakoetan inongo administraziok ez du parte-hartzearen gehiengoa. Enpresa horiek, ordea, zeharka publikoak dira, nahiz eta gobernuak zuzenean parte hartu ez.*

Auditore Jesús Muruzabal Lerga jauna da lan hau egitearen arduraduna, eta berak proposaturik eman da txosten hau, indarreko araudiak ezarrirako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde

ERANSKINA. FORU ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOAREN BESTE ERAKUNDE BATZUK

Erakundea	Sorrera	NAOn noiz argitaratu zen
EKONOMIA ETA OGASUN DEPARTAMENTUA		
Kontratazioarako Publikorako Batzordea	132/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 4koa	
DEPARTAMENTUA INGURUMENA, LURRALDEAREN ANTOLAMENDUA ETA ETXEBIZITZA		
Nafarroako Ingurumenaren Kontseilua	1/1993 Foru Legea, otsailaren 17koa	26. zk. (1993-05-01)
Nafarroako Lurralde Politikaren Gizarte Kontseilua	166/2004 Foru Dekretua, apirilaren 4koa	49. zk. (2004-04-23)
Arrantzaren Aholku Batzordea	143/1993 Foru Dekretua, urriaren 26koa	60. zk. (1993-05-14)
Ehizaren Aholku Batzordea	144/1996 Foru Dekretua, martxoaren 11koa	38. zk. (1996-03-27)
Nafarroako Uraren Kontseilua	488/1995 Foru Dekretua, urriaren 30ekoa	140. zk. (1995-11-13)
Nafarroako Oihangintzako Kontseilu Aholku-emailea	107/1996 Foru Dekretua, otsailaren 12koa	25. zk. (1996-02-26)
GIZARTE ONGIZATE, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Garapenerako Laguntzen Kontseilua	100/2002 Foru Dekretua, maiatzaren 13koa	73. zk. (2002-06-17)
Nafarroako Adinekoen Kontseilua	344/1997 Foru Dekretua, azaroaren 24koa	148. zk. (1997-12-10)
Nafarroako Gizarte Ongizatearen Kontseilua	374/1999 Foru Dekretua, irailaren 13koa	162. zk. (2003-12-24)
Nafarroako Gazterien Kontseilua	110/86 Foru Dekretua, apirilaren 18koa	53. zk. (1986-04-28)
HERRI LAN, GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Turismo Kontseilua	61/1985 Foru Dekretua, martxoaren 20koa	39. zk. (1985-03-29)
Nafarroako Garraioaren Arbitraje Batzordea	511/1991 Foru Dekretua, azaroaren 18koa	155. zk. (1991-12-06)
Iruñerriko Hiri Garraioaren Batzordea	185/1998 Foru Dekretua, ekainaren 8koa	76. zk. (1998-06-26)
HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua	Ekainaren 3ko 247/2000 Foru Dekretua	102. zk. (2000-08-23)
Nafarroako Euskararen Kontseilua	135/1996 Foru Dekretua, martxoaren 11koa	
KULTURA ETA TURISMO DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Kulturaren Kontseilua	241/1984 Foru Dekretua, azaroaren 21ekoa	
Nafarroako Turismo Kontseilua	34/2004 Foru Dekretua, otsailaren 9koa	30. zk. (10.03.04)
LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Justiziaren Kontseilu Aholku-emailea	361/2004 Foru Dekretua, azaroaren 30ekoa	145. zk. (2004-12-03)
Europar Batasuneko gaietarako Departamentuen arteko Batzordea	375/1993 F. D.	
Nafarroako Babes Zibileko Batzordea	131/1994 Foru Dekretua, uztailaren 4koa	
Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Prestakuntza Batzordea	473/1996 Foru Dekretua, irailaren 30ekoa	
Informazioaren Gizarterako Departamentuen arteko Batzordea	1999ko azaroaren 15eko erabakia	
Nafarroako Telekomunikazioen Kontseilu Aholku-emailea	168/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 17koa	
Espainiako Irrati-Telebistaren Nafarroako Kontseilu Aholku-emailea	2/1985 Foru Dekretua, martxoaren 4koa	
INDUSTRIA ETA TEKNOLOGIA, MERKATARITZA, TURISMOA ETA LAN DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Txikizkako Merkataritzarako Kontseilu Aholku-emailea	174/2002 Foru Dekretua, uztailaren 22koa	110. zk. (2002-09-10)
Artisautzako Kontseilu Aholku-emailea	109/2002 Foru Dekretua, urriaren 17koa	139. zk. (2002-11-18)
OSASUN DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Laneko Segurtasun eta Osasunaren Kontseilua		
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA MENDI DEPARTAMENTUA		
Nafarroako Foru Komunitateko Nekazaritzaren Kontseilua	213/1984 Foru Dekretua, urriaren 3koa	126. zk. (1984-10-15)
Nafarroako Mahastizaintza eta Ardogintzaren Kontseilua	97/1996 Foru Dekretua, urtarrilaren 29koa	21. zk. (1996-02-16)
Nekazaritza Ikerketaren Batzordea	1997ko uztailaren 21eko F.A.	97. zk. (1997-08-13)
Nafarroako Nekazaritzako Kontabilitate Informazioaren Sarea	1988ko maiatzaren 2ko F.A.	62. zk. (1988-05-20)
Produktzio Integratuaren Koordinazio Batzordea	1997ko uztailaren 28ko F.A.	103. zk. (1997-08-27)
Nekazaritza Azpiegiturarako Batzorde Teknikoa	28/1995 Foru Dekretua, otsailaren 6koa	20. zk. (1995-02-13)
Nafarroa Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arau-emailea	1975ko uztailaren 26ko M.A.	E.A.O. (1975-09-05)
Nafarroako Zainzuriaren Kontseilu Arau-emailea	1987-02-23ko F.A.	27. zk. (1987-03-04)
Lodosako Pikillo Piperraren Kontseilu Arau-emailea	1987ko maiatzaren 4ko F.A.	57. zk. (1987-05-08)
Tuterako Orburuaren Kontseilu Arau-emailea	2000ko uztailaren 3ko F.A.	108. zk. (2000-09-06)
Nafarroako Patxaranaren Kontseilu Arau-emailea	1988ko urriaren 24ko F.A.	133. zk. (1988-11-02)
Erronkariko Jatorriaren Kontseilu Arau-emailea	1991ko martxoaren 4ko F.A.	46. zk. (1991-04-12)
Nafarroako Aratxearen Kontseilu Arau-emailea	2000ko ekainaren 19ko F.A.	108. zk. (2000-09-06)
Nafarroako Arkumearen Behin-behineko Kontseilua	1988ko azaroaren 11ko F.A.	140. zk. (1998-11-23)

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENDAKA- RIORDE ETA EKONOMIA ETA OGASUN KON- TSEILARIAK AURKEZTUTAKO OHARRAK

Sarrera

Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateei buruz

Txosteneko 4. orrian fundazioen sektore publikoa aipatzen da. Akats material bat antzeman dugu, "Cenar-Ciemat" esan baitzaio "Cener-Ciemat" delakoari.

Halaber, ez dugu oinarri juridikorik aurkitu gaur egun sektore publikoko fundaziotzat hartzeko "Pablo Sarasate", "Esc. Práct. Juríd. Estanislao Aranzadi" eta "Amado Alonso" izenekoak.

Halaber, txosteneko 6. orrialdean, foru erkidegoko administrazioko beste erakundeen zerrenda dakarren eranskin baten aipamena egiten da. Gure ustez, erakunde horiek ez dira sektore publikoak, abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeak sektore publikoari buruz ematen duen definizioaren arabera. Gainera, erakunde horietako askok ez dute izaera ekonomikorik (ez dute gasturik, ez dirusarrerarik kudeatzen, eta ez dute ondarrerik), eta, horrenbestez, ez dute kontu-sistema propiorik; horrenbestez, haiek kontu orokorretan sartzeak ez luke inongo informazio gehigarririk ekarriko. Atal honetan haien izatea aipatzeak nahastea besterik ez dakar, eta pentsarazten du kontu orokorrak ez daudela osorik. Gure ustez, ordea, osorik daude.

IV. Iritzia.

11. orrialdean, badirudi zenbatekoa transkribatzerakoan akats bat dagoela, hain zuzen ere kontabilitate-irizpidea aldatzearen ondoriozko balantzeko saldo hartzekodunen beherapenean: 325.238.142 euro aipatzen dira, baina zenbateko zuzena 325.128.142 euro da.

IV.1. Kontu orokorrak

IV.1.1. Aurrekontuaren exekuzioa

Txostenean aipatzen da ekitaldi bateko gastuak hurrengo ekitaldian ordaintzen direla. Horri buruz esan beharra daukagu 2004ko ekitaldiko Comptos Ganberaren txostenean 11,62 milioi eurotan ezarri zuela zenbateko hori. Kopuru horren eta 2005eko ekitaldiko kopuruaren arteko aldeak (12,1 milioi) bidea ematen du esateko 2005eko aurrekontuaren betetzeak ez duela islatzen, ikuspuntu kuantitatibotik, milioi erdi bat euro baino gutxiagoko gastua. Hori, betiere, guztiz bateagarria da gastuaren egozketan lerratze-fenomeno bat izatearekin, kudeaketa-prozeduren ezaugarriengatik; ezaugarri horiek, izan ere, hobeki azal

daitezke ospitaleetako biltegietan materiala pila-tzeagatik, urteko gastuagatik baino.

IV.4 Kontuen Ganbara honek aurreko txostenetan emandako aholkuen betetzea.

Nafarroako Gobernua, bere kudeaketa eta informazio sistemetan, Comptos Ganberak emandako gomendioak aplikatzen joan da. Hala eta guztiz ere, bi zehaztapen egin behar ditugu:

– Ez dugu inongo aipamenik aurkitu esaten duenik ganberak eginiko gomendioetako batzuk beste batzuk baino garrantzitsuagoak direla, nahiz eta atal honetako hirugarren lerrokadan esaten denetik halako zerbait ondoriozta daitekeen. Hain zuzen ere, Nafarroako Gobernuak pentsatu zuen lehentasunezkoa zela Kontratuari buruzko Legea Europako zuzentara uetara egokitzea, proposatutako beste gomendio batzuen aurretik.

– Proposatutako gomendioetako batzuk betetzen oso zailak dira, betetzen ezinezkoak direla ez esatearren; horrenbestez, ganberari eskatu nahi diogu balizko betetzeen mailaketa bat egin dezan. Hartara, esate batetako, hobetu daiteke, baina epe motzean burutzen zaila da, ibilgetuaren eta inbentarioaren artean identitateari dagokiona; besteak beste, ondasun higigarri, aktibo ez-material, esku-bide eta abar batzuk baloratzen zailak direlako.

V.2. Egoera-balantzea, 2005eko abenduaren 31n (eurotan)

Dirudienez, transkripzio akats bat dago "Epe laburreko bestelako inbertsioak" izenburupean agertzen den zenbatekoan: 98.754.323,46 euro dioen lekuan, 98.754.232,46 euro esan beharko luke.

X. Aurrekontu-programei buruzko azterketa

X.1. Aurrekontu programei buruz

Ados gaude aurrekontuaren helburu eta adierazleei buruzko informazioa hobetzeko beharreakin; hartara, horri buruzko aurreikuspenak sartu ditugu Nafarroako Gobernuak onetsi eta legebiltzarrerara igorri duen Ogasun publikoari buruzko lege proiektuan.

X.1. Gomendio orokorrak

XI.1. Aurrekontuak eta kontu orokorrak

Foru ogasunari buruzko Foru Legea egokitze gomendioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak kasuko foru lege proiektua onetsi du; bertan, abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legean ente eta erakundeentzat jasotako tratamendua ageri da, bai aurrekontu eta kontu gaietan, bai ganberak aipatzen ez dituen bestelako funtzionamendu alderdietan. Halaber, aurrekontuaren luzapena eta kontu orokorretan sartu beharreko informazioaren

edukia erregulatzen da, bai eta Comptos Ganberaren beste gomendio batean erabiltzea gomendatzen diren kontabilitate-irizpideak ere.

Halaber, lan egin dugu Comptos Ganberak gomendaturiko tresnak eta sistemak ezartzeko; hartara, gastu-proiektuen jarraipena garatu eta ezarri da, finantzaketa atxikietan izaniko desbideratzeei buruzko informazioa eman ahal izateko; izan ere, informazio hori ezinbestekoa da aurrekontu-emaitza zehazteko, Kontabilitate Publikoari buruzko Plan Orokorra ezarri bezala, bai eta diruzaintza-gerakina ganberak gomendatutako terminoetan zehazteko ere. 2007an behar den informazioa edukiko dugu gai horiei ekiteko, betiere kontabilitate modulu berri horrek gertatzen diren finantzaketa atxikiko egoera guztietan duen erabileraren arabera.

Ganberak gomendatzen du, halaber, zordunen eta hartzekodunen saldoen eta bilakaeraren azterketa zehatza egitea –ekitaldi indardunekoak nahiz itxitako ekitaldietakoak–. Horri dagokionez, aipatu beharra dago 2006ko ekitaldian, kontabilitate sistemaren ingurunean, itxitako aurrekontuen informazioaren jarraipena aplikatu dela. Informazio hori ez da 2005eko kontu orokorretan sartu, eta ez da auditoria-taldearen eskura egon auditoria lanak egin diren garaian, zeren eta haien kalitateari buruzko azken egiaztapenak egiten ari baitziren. Adierazi beharra dago, gainera, sistemak ez duela tributuzorrak direla-eta itxitako aurrekontuen kudeaketari buruzko informaziorik ematen.

“Ganberak gomendatzen du aurrekontu-kontabilitatean gastu guztiak erregistratzea, nahiz eta gastu zabalgarritzat ez hartu.” Eta hori egitea soilik “aurrekontuan superabita lortuz gero”. Gure ustez, aurrekontuaren muga-izaera haustea da, eta Nafarroako Parlamentuak horri buruzko gogoeta egin beharko luke.

XI.3 Kontuhartzailtza-Barne kontrola

Kontu-hartzailtzako langileen plantillan aurreikusitako lanpostuak behin betiko betetzeko gomendioari dagokionez, esan beharra dago gaur egun 13 lanpostuak beteta daudela, nahiz eta horietako 8 behin-behineko moduan beteta egon; eta administrazio publikoko teknikarien (adar ekonomikoa) 32 lanpostu betetzeko deitutako oposizioan 8 lanpostu horiek sartu direla; oposizioa aurtan bukatuko dela aurreikusi da. Horrenbestez, lanpostu horien betetzea ez da gobernuaren borondatearen pean egonen, baizik eta oposizioaren emaitzen pean.

XI.8. Diruzaintza

Gure ustez, banku-kontuen datuak erregularizatzeko prozesua osorik badago ere, kontuan hartuko ditugu Comptos Ganberak gai horri buruz egiten dituen gomendioak.

Halaber, administrazioan beti ulertu da kontabilitatearen eta diruzaintzaren artean egin beharreko banku-berdinkatzea zela Nafarroako ogasunaren ikuspuntutik likidezia zeukaten banku-kontu guztiei dagokiena, ez epekako ezarpenak jasotzen dituzten banku-kontuei dagokiena. Balantzean bertan batzuk eta besteak epigrafe desberdinetan daude jasota: “Diruzaintza” izenpean ageri dira lehenbizikoak eta bigarrenak, ordea, “aldi baterako finantza inbertsioak” izenpean.

Hori dela eta, bi berdinkatze egiten dira, bata “bistan” deitutakoentzat, eta bestea “eperako” deitutakoentzat, eta haien artean dauden aldean azalpena jasotzen da. Hau da, berdinkatzea egin egiten da, baina bi dokumentu berezietan. Ganberak uste baldin badu hobe dela dokumentu bakarrean egitea, ez dago inongo arazorik ekitaldi honetatik aurrera horrela jokatzeke.

X.I.9. Enpresa publikoak.

“Sektore publikoaren kotizazio ofizialik gabeko akzioak” kontuko balioen artean dauden alde txikiak enpresen auditorietatik ondorioztatzen direnkin doitzeari dagokionez, esan beharra dago ez dagoela zertan bi balio horiek guztiz bat etorri. Oroitidazkiko tauletako akzioen kopuruari buruzko, parte-hartzeari buruzko eta abarrei buruzko datuen artean dagoen alde bakarra da Nafarroako Gobernuak ekitaldi batean gauzatutzat eman baina sozietateek eskritoretan hurrengo ekitaldian jasotzen dituzten kapital-zabaltzeak daude. Edozein modutan ere, eta alde batera utzita TRACASAREN balorazioan dagoen akats-tartea (txosteneko 6. orrialdean jasota ageri dena), kasuan kasuko enpresen balantzeetan agertzen diren akzioen balioen eta Gobernuaren kontuan ageri den zenbatekoaren arteko aldeak, euroak indarra hartu eta ondorengo biribiltzei dagozkienak baino ez dira; izan ere, euroak enpresetan akzioen balio nominala eta Gobernuaren erosketa-balioaren zenbateko orokorra aldarazi zituen. Bi bihurketa prozeduren arteko aldea, biak ala biak zuzenak, 2 eurokoa da.

VINSAREN akzioak kontabilizatzeko balioen eta balio errearen –doako kapital-zabaltzeen ondoriozkoaren– arteko aldearen arrazoiak aipatzea komeni izateari dagokionez, esan beharra dugu Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorra jasotzen duen balorazio-irizpidea aplikatu dugula, hain zuzen ere erosketaren balio historikoari dagokiona.

“Enpresa publikoentzako maileguak” kontuaren saldoa enpresen balantzeetatik ondorioztatzen den saldoarekin doitzeko gomendioari dagokionez, badirudi agerian uzten duela kontabilitate-

desfase bat, hemen azaldu behar duguna: “Riegos de Navarra” enpresa publikoak ureztatzaileentzako mailegu batzuk kudeatzen ditu, gero Nafarroako Gobernuari itzuli beharrekoak, eta bi saldo horiek, uneoro, bat etorri beharko lukete.

Bada: 2005eko ekitaldiko amortizazioak (206.267,88 euro) ekitaldiaren bukaeran sartu zituen enpresak. Hala eta guztiz ere, kobrantza hori 2006ko lehen hamabostaldian jaso zuen Nafarroako Gobernuak, eta urte horretako aurrekontuan aplikatu zuen; hartara, zordunei baja eman eta saldoa 2006ko otsaileko kontuan doitu zen. Horrek esan nahi du Riegos de Navarra enpresako kontuetan abenduaren 31n bizirik zeuden maileguen bolumena 3.165.606,70 eurokoa zela, eta Nafarroako Gobernuan jasotako zorra, berriz, 3.361.874,58 eurokoa.

Lehendakariorde Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: Francisco Iribarren Fentanes

AURKEZTUTAKO OHARREI NAFARROAKO COMPTOS GANBERAK EMANIKO ERANTZUNA

Lehenengoa.

Oharren idazkian hiru akats mekanografiko aipatzen dira, txosten honetan zuzenduta daudenak.

Bigarrena. Nafarroako sektore publikoa osatzen duten entitateei buruz

Fundazio batzuk publikotzat ez hartzeari buruz eta administrazioaren beste erakunde batzuen aipamenari buruz, zehaztu nahi dugu aipatu hiru fundazioen kontuak Nafarroako Gobernuaren kontuen oroitidazkian sarturik daudela (fundazioen eta bestelako erakundeen epigrafean), eta horregatik jaso ditugula txostenean.

Eranskinean jasotako beste erakundeei dagokienez, besterik gabe izan badirela adierazi nahi dugu.

Fundazioen izaerari buruzko zalantza eta erakunde horien guztien izatea Nafarroako ogasun publikoari buruzko Foru Legea egokitzeko behararen beste froga bat dira. Gomendioa, oharren idazkian jaso den bezala, jada bete da, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektua onetsi baitu.

Hirugarrena. Gomendioen betetzeari buruz

Uste dugu gure eginkizuna dela egindako lanetik ondorioztatzen diren gomendio nagusiak aipatzea, eta gure ustez Nafarroako Gobernuak nahi-

koa ahalmena badu haien garrantzia eta presa baloratzeko, bestela ere egin behar dituen lanak eta dauzkan baliabideak kontuan hartuta.

Bestalde, fiskalizazio organoak egin beharreko lanetarako lehentasunak ezarri izan balitu, exekutiboaren lanetan sartzan ari zela pentsa zitekeen. Hala eta guztiz ere, prest gaude, ganbera hau beti egin duen bezala, Nafarroako Gobernuari laguntza emateko eskatzen dizkigun gai guztietan.

Laugarrena. Gomendio orokorrei buruz

Oharren idazkiak honakoa dio: “Ganberak gomendatzen du aurrekontu-kontabilitatean gastu guztiak erregistratzea, nahiz eta gastu zabalgarritzat ez hartu.” Eta hori egitea soilik “aurrekontuan superabita lortuz gero”. Gure ustez, aurrekontuaren muga-izaera haustea da, eta Nafarroako Parlamentuak horri buruzko gogoeta egin beharko luke.”

Gomendio hau txostenean urte bateko gastuak hurrengo urtera aldatzeari buruz egindako erreferentziaren ondorioz sortu da (eta oharretan komentatzen da).

Xede du jasota uztea hori gertatzen dela aurrekontuan superabita izan arren, eta hori kontraesan bat da.

Gure ustez, gutxienez ere kasu honetan, aurrekontu-figura batzuk egon daitezke bidea emanen dutenak egindako gastu guztiak kasuko ekitaldian egozteko.

Bestalde, aipatu beharra dago aurrekontuaren muga-izaeraren haustura ez dela gertatu gastu batzuk erregistratzeagatik, baizik eta gastuak benetan egiteagatik, alde batera utzita kontabilizatzen diren ala ez diren kontabilizatzen.

Bosgarrena. Diruzaintzari buruz

Berdinkatzei dagokienez, esan beharra dugu bi egiten direla: bat “bistan” eginikoa da eta bestea “epeka” esaten direnetakoa; hala eta guztiz ere, balantzean sartzan dira, halaber, “epe laburreko finantza-inbertsioak,” baldintza hauetan jasota ez daudenak. Kontua ez da, beraz, agiri batean edo bitan egitea, baizik eta kontuan hirugarren multzo hori ere sartzea.

Seigarrena

Gainerako kontuak, gure ustez, departamentuaren azalpen edo iruzkinak dira, eta, horrenbestez, ez daukagu zertan argitu.

Iruñean, 2007ko otsailaren 13an

Lehendakaria, Luis Muñoz Garde